

ERIZAINEN ZUZENDUTAKO FARMAKOLOGIA KLINIKOA

HELBURUA.-

Irakasgai honen helburu nagusia ikasleek erizaintza-zerbitzuan medikamentuak modu eraginkor eta seguruan emateko behar diren gaitasunak lortzea da.

DESKRIBAPENA.-

Irakasgai honen bidez, ospitalean lan egin behar duten etorkizuneko erizainek eguneroko erabilera medikamentuak modu eraginkor eta seguruan emateko gaitasunak lortuko dituzte. Horretarako, gai bakoitzaren hasieran fisiopatologiari buruzko sarrera labur bat idatzi da. Era honetan, ikasleek hobeto ulertuko dute zein da konpondu beharreko arazoa eta zeintzuk dira eskura izango dituzten medikamentuen akzio-bideak arazoari aurre egin ahal izateko. Horrez gain, egunero esku artean izango dituzten medikamentuak modu egokian administratzeko arau eta aholkuak emango dira. Hala nola, zein serumetan diluitu behar dira, zeintzuk dira normalean erabiltzen diren dosi eraginkorrak, zein da erabiltzen den emateko bidea, zeintzuk dira antzeman behar dituzten eragin desiragaitzak, etabar.

Irakasgai honek erizainek gaixoei eskaintzen dieten zainketaren kalitatea hobetzeko ezagutzak eskainiko dizkio ikasleari, eta gainera ospitaleetan aurkituko dituzten baliabideen erabilera egokia erraztuko die, eraginkortasuna handituz eta erizainen jakintza eguneratua izatea bultzatuz.

NORI ZUZENDUTA: AURREBALDINTZAK.-

Ikastaro hau Erizaintza Gradu ikasleentzat erabilgarria izango da, erizainek egunero esku artean izango dituzten printzipio aktibo eta medikamentuak modu egokian administratzeko arau eta aholku batzuk emango direlako.

Gainera, antolatuta dagoen moduagatik osasun zientzietako beste Graduetan interesgarria izan daiteke, adibidez, Medikuntza eta Farmazian. Formazio-ziklo zientifiko-teknikoetako ikasleak ere gai izango dira kurtso hau jarraitzeko.

Aurrebaldintzei dagokienez, desiragarria izango litzateke ikasleek Fisiologiari edo Giza Gorputzaren Egiturari eta Funtzioari, eta Fisiopatologiari buruzko oinarritzko ezagutza izatea hobeto ulertzeko egoera bakoitzean zein da gure gorputzaren funtzionamendu normala eta zer gertatzen da desorekatzen edo zerbait gaizki dabilenean.

GAITASUN ESPEZIFIKOAK.-

Hona hemen kutso hau jarraitzen duen ikasleak bukaeran lortuko dituen gaitasun espezifikoak:

1.1.- Erizaintzarekin lotutako medikamentuen eta osasun-produktuen erabilera eta egokitasuna ezagutuko du.

1.2.- Medikamentu mota ezberdinak; medikamentuon baimentze-, erabilera- eta egokitasun-printzipioak eta haien ekintza mekanismoak ezagutuko ditu.

1.3.- Medikamentuen erabilera; esperotako onurak eta baita medikamentuok administratzearen eta kontsumitzearen arriskuak edo/eta ondorioak aztertzen ere jakingo du.

1.4.- Ohiko erabilerako medikamentuen osagai aktiboak, ekintzak, indikazioak, eragin desiragaitzak eta elkarrekintzak ezagutuko ditu.

1.5.- Ohiko erabilerako medikamentuak eta horien aurkezteko moduak, eman bideak, dosiak eta administrazio tarteak identifikatzen jakingo du.

1.6.- Prozesu fisiopatologiko ohikoenak dagokion terapeutika farmakologikoarekin lotzeko gai izango da.

1.7.- Medikamentuak emateko prozedura ebidentzia zientifikoko printzipioen pean erabiliko ditu, segurtasun klinikoko arauak zorrotz betez.

Gaitasun hauekin guztiekin ikasgaiaren helburu nagusia lortuko da, hau da, ikasleak erizaintza-zerbitzuan medikamentuak eta osasun-produktuak modu eraginkor eta seguruan emateko gai izango dira.

Gaitasun hauek garatzeko irakasgai hau hainbat ikasgaitan banatuko da. Lehenengo gaien botiken ezaugarri nagusiak (botiken propietateak, askapena, xurgapena, banaketa, metabolismoa eta irazpena, ekintza-mekanismoak, kontrako eraginak, elkarrekintzak) aztertuko dira.

Hurrengo gaietan farmako mota desberdinak aztertzen joango gara, indikazio, gaixotasun edota gorputz sistema bati lotutako medikamentuak desberdinduz. Ildo honetan, alde batetik barne-ingurumenari eragiten dioten botikak, analgesikoak eta infekzioen aurkakoak aztertuko dira. Beste alde batetik, arnas-aparatuko, sistema hematopoietikoko, digestio-aparatuko, sistema kardiobaskularrerako, nerbio-sistema zentral, autonomo eta periferikorako, sistema endokrino eta metabolismo-asalduretarako erabiltzen diren botikak, psikofarmakoak, botika normo eta hipogluzemiantek eta botika nefro-urologikoak ikasiko dira. Azkenik, egoera

kritikoan dauden gaixoentzako botikak, azalerako, begietarako eta otorrinolaringologian erabiltzen diren botikak, GIB-aren infekzioaren kontrako botikak eta antineoplasikoak eta immunosupresoreak ere azalduko dira.

IKASGAI-ZERRENDA.-

1. GAIA- OINARRI NAGUSIAK

Farmakoen propietateak

Askapena, xurgapena, banaketa, metabolismoa eta irazketa

Ekintza-mekanismoak

Eragin desiragaitzak

Farmakoen elkarrekintzak

Informazio-iturriak farmakologian: Vademecuma, Medimecuma

2. GAIA- BARNE-INGURUMENARI ERAGITEN DIOTEN FARMAKOAK

Fluidoterapia: serum-motak, oharrak, arazoak, emateko moduak

Nutrizio parenterala

Nutrizio enterala

3. GAIA- ANALGESIKOAK - ANTIINFLAMATORIOAK - ANTIALERGIKOAK

Analgesiko opiazekoak: morfina eta beste opiazeko batzuk

Antiinflamatorio ez Esteroideoak (AINE)

Beste analgesiko batzuk

Minaren terapia

Kortikoideak

Beste antiinflamatorio batzuk

Antialergikoak: antihistaminikoak eta beste batzuk

4. GAIA- INFEKZIOEN AURKAKO FARMAKOLOGIA

Kontzeptu orokorrak

Antibiotikoak erabiltzeko oharrak

Sailkapena

Penizilinak, Zefalosporinak eta beste Betalaktamiko batzuk

Aminoglukosidoak

Kinolonak

Beste antibiotiko bakterizida batzuk

Bakteriostatikoak

Sulfamidak: kotrimoxazola
Tuberkulostatikoak
Antifungikoak
Antiparasitarioak edo parasitoen kontrakoak
Antibirikoak edo birusen kontrakoak
Txertoak
Gammaglobulinak

5. GAIA- ARNAS-APARATUKO FARMAKOLOGIA

Oxigenoterapia
Bronkio-zabaltzaileak
Antitusiboak edo ezturen kontrakoak
Mukolitikoak eta espektoratzailak
Beste batzuk: kortikoideak, antiinflamatorioak, txertoak

6. GAIA- SISTEMA HEMATOPOIETIKOKO FARMAKOLOGIA

Antianemikoak: burdina, azido folikoa, B-12 bitamina
Antikoagulatzaileak: heparinak, aho bidezko antikoagulatzaileak
Fibrinolitikoak eta antifibrinolitikoak
Antiagregatzaile plaketarioak
Hemoderibatuak
Faktore bizkortzaileak
Beste batzuk

7. GAIA- DIGESTIO-APARATUKO FARMAKOLOGIA

Higikortasun altuaren erregulatzaileak: antiemetikoak (gorakoaren kontrakoak)
Urdail-babesleak eta antiultzerosoak (ultzeraren kontrakoak)
Antidiarreikoak edo beherakoaren kontrakoak
Libragarriak edo laxanteak
Beste batzuk

8. GAIA- FARMAKO NORMO ETA HIPOGLUZEMIAZAILAK

Intsulinak
Aho bidezko antidiabetikoak

9. GAIA- FARMAKO NEFRO-UROLOGIKOAK

Diuretikoak

Azido-basiko orekaren eta ioi-orekaren botikak

Giltzurrun gutxiegitasunaren kontrako botikak

10. GAIA- NERBIO SISTEMA ZENTRALEKO FARMAKOAK

Parkinson gaixotasunarekontrakoak

Antikonbultsiboak

NSZren bizkortzaileak

11. GAIA- PSIKOFARMAKOAK

Hipnotikoak

Antsiolitikoak

Antipsikotikoak

Antidepresiboak

12. GAIA- NERBIO SISTEMA AUTONOMO ETA PERIFERIKOKO FARMAKOAK

Sinpatikomimetikoak

Alfa eta beta blokeatzaile adrenergikoak

Parasinpatikomimetikoak

Antikolinergikoak

Anestesia eragiten duten botikak

13. GAIA- SISTEMA KARDIOBASKULARREKO FARMAKOAK

Bularreko anginaren kontrakoak

Antiarritmikoak

Antihipertentsiboak (hipertentsioaren kontrakoak)

Inotropikoak

Beste batzuk

14. GAIA- GAIXO KRITIKOENTZAKO FARMAKOAK

Bihotzerako botikak

Beste botika batzuk

15. GAIA- MEDIKAMENTU DERMATOLOGIKOAK, OFTALMIKOAK ETA OTORRINOLARINGOLOGIKOAK

Azalerako botikak

Begietarako botikak

Otorrinolaringologian (ORL) erabiltzen diren botikak

16. GAIA- ENDOKRINOLOGIA- ETA METABOLISMO-ASALDURETAKO FARMAKOAK

Hormona hipotalamikoak eta hipofisiarioak

Hormona tiroideoak eta tiroideen kontrako botikak.

Giltzurrun gaineko hormonak - Kortikoideak

Androgenoak, estrogenoak eta progestagenoak

Hipolipemiantek

Antigotosoak eta hipourizemiantek

Bitaminak

17. GAIA- GIB BIDEZKO INFEKZIORAKO FARMAKOAK

Antirretobiralak

Infekzio oportunisten kontrako profilaxiak

Infekzio oportunisten kontrako tratamenduak

18. GAIA- FARMAKOLOGIA ANTINEOPLASIKOA ETA IMMUNOSUPRESOREAK

Zitostatikoak

Immunosupresoreak

METODOLOGIA.-

Ikastaro hau banaka ikasteko prestatu da. Irakasgai bakoitza lantzeko hurrengo materialak prestatu dira:

- Ikasteko materiala.
Fitxategi ezberdinetan gai bakoitzari dagozkion azalpen teorikoak ematen dira
- Ariketa praktikoak eta material osagarria.
Baliabide hauekin ulermena eta ezagutza landuko dira.
- Autoebaluaziorako test frogak:
Edukiak modu egokian ulertu diren ziurtatzeko autoebaluaziorako test frogak egin daitezke.
Ikasleak irakasgaiaren helburuak lortu dituela egiaztatzeko autoebaluazio guztiak gainditu beharko ditu.

KRONOGRAMA.-

Ikastaroa lau hilabetetan egin daiteke.

Kurso hau ondo jarraitzeko lehenengo gai teorikoak irakurtzea gomendatzen da. Bi gai irakurri eta landu ostean birpasoko galderak egin daitezke.

Bukatzeko, gai guztiak amaitu eta gero, autoebaluazio froga bat egitea posible da bakoitzak bere ezaguera maila neurtzeko.

Ikasgaia egiteko ordu kopurua gutxigorabehera 125 ordu dira guztira. Kronogramak aste bakoitzean jorratu beharreko gaiak azaltzen ditu:

		Gaiak eta Birpasok																											
Asteak		1	2	B	3	4	B	5	6	B	7	8	B	9	10	B	11	12	B	13	14	B	15	16	B	17	18	B	
1		█	█	█																									
2				█	█																								
3					█	█																							
4							█																						
5								█	█																				
6										█	█																		
7											█	█																	
8												█	█																
9													█	█															
10														█	█	█													
11																█	█												
12																	█	█											
13																		█	█										
14																			█	█									
15																					█	█							
16		Autoebaluzioa																											

B = Birpasoa

Dena den, kursoaren ikasgai bakoitzak ez dauka pisu berdina irakasgaien. Horregatik gai bakoitza menperatzeko gutxi gorabehera beharrezkoak izan daitezkeen lan orduak hurrengo taulan azaltzen dira.



Gaiak eta Birpasoak									
	1	2	B	3	4	B	5	6	B
Lan orduak	3	3	2	5	5	2	4	7	2

Gaiak eta Birpasoak									
	7	8	B	9	10	B	11	12	B
Lan orduak	4	5	2	5	5	2	5	8	2

Gaiak, Birpasoak eta Problemak										
	13	14	B	15	16	B	17	18	B	P
Lan orduak	8	4	2	3	10	2	5	4	2	2

B = Birpasoak (galderak)

P= Problemak

	Autoebaluazio proba I		Autoebaluazio proba II	
	Prestatzeko	Egiteko	Prestatzeko	Egiteko
Lan orduak	5	1	5	1